

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

## Hariari brintz

Busti-lehorrerako egokienak diren egurrak gaztaina (*Castanea sativa*) eta sasi-akazia (*Robinia pseudoacacia*) dira. Material hauekin egiten dira itxituretarako baldo, hesola, taket, zurkaitz, zutuin, zutiko, tantai, pazota... gehienak. Gaur egun zinta-zerran, zerra zirkularrean edo motozerrarekin egiten badira ere, era zaharrera, borrarrekin burdin-ziria jo eta sartu eta enborra printzatuta, bringatuta, arrailduta, baldoak egurraren harian egiten duenik ere bada oraindik. Harian egindako hesola okerragoa izango da, eskurako eskardatsuagoa eta zakarragoa, garraiorako eta lurrean sartzeko baldarragoa, baina alde ederreko iraupena izango du, hariak oso-oso-koak izango baititu, goiko burutik hasi eta beheko muturrerainokoak.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

## Maiatzak 5, 1808, Baiona

ESPAINIAKO Maria Ana erregin mainontziak, duela hirurehun bat urte alargundu eta haizea hartzera bidali zutenean, Marracqeko gaztelua eraiki zuen erbestean, Baionan. Egun izen bereko auzoan dago, hiriko monumentua izendatua izanagatik harri pila bat besterik ez dena. Harri arte horretan bertan Napoleonen hankapean, 1808an, maiatzaren 5ean, Espainiako Borboien leinuak, Maria Luisa eta Karlos IV.a erregin-erregeak eta haien seme Fernando VII.ak, erregetzarako eskubideei uko egin zion, jubilazio oparo baten truke herria merke asko salduz. Sinadura haien erramu, Euskal Herriak makina bat desgrazia pairatu zuen, eta ipar eta hegoko auzokoen sestra artean, gure garai negargarrienetako baten atarian sartu ginen. Historia utzi eta loreetara, ganorazko gaietara goaztean! Euskal Herria oraindik ere penatzen duen sestra horixe landareetan ere bizirik da.

Baionako harri arte hartan herria saldu zuen Maria Luisa haren omenez da *Aloisya citrodora* luisa-belarra. Luisa beretik dator *Aloisya*. Espainiako jakintsu-espedizio batean zirrikituren batetik sartuta, Joseph Dombey naturalista frantsesak 1780 alde-ra Hego Amerikako landarediaren gaineko berri mardulak igorri zituen, kininari buruzkoak eta oraino *Jardin des Plantes* Parisko botanikoan dagoen herbario edo landare bilduma entzutetsua tartean... Hari zor zaio luisa-belarraren ezagutza Europan. Egun, botanikari frantximantatu ugari *Dombeya* izena jarriko lioke landare genero horri.

Italian jaiotako Espainiako erreginaren ohorezko *Aloisya* baino lehen luisa-belarrari *Lippia citrodora* deitzen zitzaion. XVII. mendeko naturalista frantses Augustin Lippiren omenezko izena.

Landare askori egiten zaiona egin zaio luisa-belarrari: Lippiri kendu, Dombeyri eman ez eta *Aloisya* jarri. Horra sestra. Espainia eta Frantzia. Eta Baiona erdian...

*Kostelam*  
LOREZAINZA

Diseinua · Sorkuntza · Mantenua

Olatz Eiguren Txopitza

Lekend (BIZKAIA) · [www.kostelam.com](http://www.kostelam.com)

Tel: 94 884 27 78 · 905 77 01 88